

## ESKOLA KIROLEKO GARRAIOA ERABILTZEKO ARAUAK ASTE BURUAK

### A. ERABILERA ARAUAK

Garraio zerbitzua eman eta programatu ondoren, erakunde erabiltzaileek erabilera arau hauek bete behar dituzte:

- Autobusera sartu ahal izango dira kirolariak eta taldearekin eskola lizentzia duten beste teknikari bat. Familien ordezkari bat baino gehiago izanez gero, horietako bat bakarrik sartu ahal izango da.
- Talde guztiek, zerbitzu hau erabili ahal izateko, honako baldintza eta eginkizun hauek betetzen dituen arduradun bat izan beharko dute:
  - o Abian den kanpainako eskola kirolerako lizentzia izatea.
  - o Adin nagusikoa izatea.
  - o Laguntzailea erdialdeko edo atzealdeko zerbitzu atearen inguruan eseriko da.
  - o **Autobusera sartzen diren pertsonak horretarako eskubidea dutela egiaztatzea (eskola lizentzia eta taldeko kide izatea).**
  - o Adingabeak garraiatzean, haiek zaintzeaz eta ibilgailura sartzeko eta bertatik irteteko ekintzez arduratzea.
- Garraioa, eman ondoren, joateko eta itzultzeko erabili behar da.
- Eskola garraioan ez dira baimenduko honako portaera hauek:
  - o Horretarako gaituta ez dauden lekuetan bidaiatzea.
  - o Ibilgailuak duen segurtasun edo larrialdi mekanismoren bat justifikatutako arrazoirik gabe erabiltzea .
  - o Ateak irekitzeko eta ixteko mekanismoak maneiatzea edo indarrez erabiltzea.
  - o Ibilgailuen barruko nahiz kanpoko aldeetan idaztea, pintatzea, zikintzea edo edozein modutan narriatzea.
  - o Irratiak, soinua edo komunikazioa erreproduzitzeko aparatuak, gailu elektronikoak edo antzekoak gainerako erabiltzaileentzat edo gidarientzat gogaikarria izan daitekeen bolumen baten erabiltzea.
  - o Ibilgailu barruan erretzea, droga toxikoak edo estupefazianteak hartzea edo alkoholdun edariak edatea.
  - o Ibilgailuen barruan jatea eta edatea, baldin eta horrekin ibilgailuaren segurtasun baldintzak aldatzen badira, ibilgailua zikintzen bada, edo gainerako bidaiariak gogaitzen baditu.
  - o Oro har, debekatuta daude norberaren edo beste erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan jar dezaketen portaerak, bai eta erabiltzaileentzat edo zerbitzua ustiatzen duen enpresako agente eta langileentzat gogaikarriak edo iraingarriak izan daitezkeenak ere.
  - o Arabako Lurralde Historikoko bidaiarien garraio zerbitzuei buruzko araudian jasotako beste debeku batzuk urratzea.
- Arabako Foru Aldundiak erakundeak emandako beste garraio batzuetatik kanpo utzi ahal izango ditu, denboraldi honetan edo hurrengoan, honako jokabideren batengatik:
  - o Ez erabiltzea garraioa, joanekoan eta/edo itzulerakoan, alde zurreko jakinarazpenik gabe edo zerbitzua berrantolatze behar besteko epean jakinarazita.
  - o Ez erabiltzea garraioa laguntzailea ez edukitzeagatik.
  - o Aurreko puntuan deskribatutako baimendu gabeko edozein jokabide egiteagatik.



## B. GORABEHERAK

Autobusen adjudikazio orriak kasuan kasuko autobus konpainiaren telefono bat du, **joan-etorriaren egunean (larunbata/igandea) premiazko konponbidea** behar duen edozein **gorabehera** konpontzeko.

Telefono hori zentzuz erabili behar da, honako egoera hauetan **baino ez**:

- ATZERAPENAK EDO EZ AGERTZEAK:
  - o **Joan**: autobusa ez bada iristen ezarritako irteera lekura, hasieran ezarritako ordutegitik gutxienez 10 minutu igaro ondoren.
  - o **Etorri**: autobusa ez bada iristen bidaiariak jasotzeko ezarritako lekura, hasieran ezarritako ordutegitik gutxienez 30 minutu igaro ondoren, eta betiere gidariak atzerapenaren berri eman ez badio. *\*Oharra: joan-etorria beste talde batzuekin egiten badute, lehiaketetan atzerapenak egon daitezke.*
- GORABEHERA LARRIA:
  - o Premiazko konponbidea behar duen edozein gorabehera larri.

Gorabeherak konpontzeko telefonoa da, ez zalantzak argitzeko telefonoa. Programatu den zerbitzuari buruzko edozein zalantza posta elektronikoz argitu beharko da helbide honetan [ekirolabus@araba.eus](mailto:ekirolabus@araba.eus) ostiraleko 15:00ak arte.

**Ostiraleko 15:00etatik 22:00etara, komunikabide bakarra Whatsapp bidez izango da, 660947996 telefono zenbakian, eta autobus zenbakia, ekipoa eta gorabehera idatzi beharko dira. Ostiraleko 22:00etatik aurrera, Whatsapp zerbitzua ez da erabilgarri egongo.**

---

Era berean, Arabako Foru Aldundiak guardiako telefono bat jarri du erakunde erabiltzaileen eskura, gorabehera hori autobusen adjudikazio orrian ezarritako telefonoan konpondu ezin bada ere.

Ezin izango da guardiako telefonoa erabili zalantzak argitzeko. Gorabeherak ebazteko baino ez.

Telefonoa zerbitzuetarako programatu diren orduetan soilik egongo da erabilgarri.

**GUARDIAKO TELEFONOA: 660947996**

Hainbat saiakera egin ondoren guardiako telefonoak erantzuten ez badu, **657 77 84 75** telefono zenbakira dei daiteke.